

Alfabetagintzan idazmena lantzeko zenbait argibide

Agurtzane Maiz

Idazmenak alfabetatzearen barruan gainerantzeko hizkuntz trebetasunak baino premia handiagoa du, jenderik gehienak ez bait du erdaraz ere idazteko teknika menderatzen, hizkuntza horretan eskolatua izan bada ere.

Idaztea oso ekintza konkretua da eta bere arauak dituena. Idazki bakoitzari bere idaztankera dagokio. Ez dira molde berean idazten deskribapena, kontaketa, eskutitza, laburpena, txostena, curriculum vitae, etabar. Hau da, idazteko modu asko daude eta ondo mugatuak gainera.

Hauxe da, hain zuzen ere, idazmena lantzerakoan dagoen oztopo haundieta: euskaraz idazten irakatsi aurretik, idazteko teknika ezberdinak irakatsi behar direla.

Batek baino gehiagok esan dezake hori ez dela zuzenean euskaraz alfabetatzearen egitekoa; baina alferrik samarrekoa derizkiot ikasle bati euskaraz laburpen bat egin erazi nahiari, laburpenak egiten ez baldin badaki. Eta laburpenaz dioguna bera esan daiteke beste edozein idaztancerari buruz ere.

Komeni da, beraz, ezer idazten hasi aurretik, idaztankera bakoitzaren marka definitzea eta bereak dituen ezaugarriak adieraztea.

Honetarako, eta adibide gisa, artikulua honetan zenbait idaztancerari buruzko argibideak aztertzeari ekingo diogu.

1. DESKRIBAPENA

Deskribatzea, aurrean dagoen objektua (pertsonea, gauza edota giroa) hitzen bidez *marraztea* da. Horretarako, deskribatu nahi den elementu horrek eskaintzen dituen seinale edo markak hartu behar dira kontuan.

1.1. Ezaugarriak

Deskribapenak ona izateko, *zehatza*, *osoa* eta *laburra* izan behar du. Onespina, arbuioa, harridura-sentimendua etabar senti erazi behar dio irakurleari. Ikusten ez badute ere, begien bistan duteneko sentsazioa sortu behar die, norberaren sentimenduen bidez deskribatzen bait da.

Argitasuna ere ezinbestekoa da deskribapenean, eta hau behar diren hitzak bakarrik erabiliz lortzen da. Horretarako, sinonimoen artetik kasuan kasurako egokiena aukeratzea da onena.

1.2. Deskribapenaren prozesua

Deskribapenak begien bistan ez dugun elementuren bat ikusterazten digu, eta badira horretarako teknikak:

1.1.1. Oharmona

Deskribagaia ondo aztertzea komeni da eta, horretarako, gorputzaren bost zentzumenak erabili behar dira: ikusmena, usaimena, gustamena, entzumena eta ukimena; hauen bidez zehaztasun osoz atzemango dugu kanpoan dagoena. Hala ere, ez da nahikoa objektua zentzumenez behatzea; beharrezkoa da galdeztzea, aztertzea eta baloratzea, beti ere bere testuinguruan. Hau da, objektuaren zernolakoak adierazi behar dira, zertarako den eta, azkenik, inguruko objektuekiko duten espazio eta leku-erlazioa. Hau dela eta, objektua hobeto eza-gutzeko, asko lagun dezakete ondoko galdera hauek:

- Nolakoa da fisikoki?
- Non dago?
- Norena da?
- Zer derizkiote erabiltzen dutenek?
- Zer esanahi du erabiltzen den gizar-te edo inguruan?
- Zer balio psikologiko, estetiko edota sinboliko ematen dio ikusten duenak?

1.2.2. Elementuen aukera eta ordena

Deskribatzea ez da objektuaren ezaugarrien zerrendatze hutsa, aukeratu eta ordenatu ere egin behar dira, eta honela egin daiteke:

a) *Gauza orokorretatik bakunetara eta alderantziz.* Adibidez, paisaia baten deskribapen orokorra eginez has daiteke eta gero, piskanaka-piskanaka, zineman erabiltzen den teknika berarekin, lehenengo planora pasa eta xehetasunak kontatzen hasi.

b) *Formatik edukira eta alderantziz.* Adibidez, kitarra baten forma deskri-

batzen hasi eta gero dituen zatiak eta nola erabiltzen den deskribatu.

c) *Gertuenetik urutienera bai lekuan eta bai denboran eta alderantziz.* Adibidez, ingurugiro bat orain ikusten den bezala eta duela urte batzuk ikusten zen bezala deskriba daiteke.

1.3. Datuen aurkezpena

Ikusten dena ondoen adieraziko duen esaldia aurkitzea da. Deskribagaiaren ezaugarriak ondoen ezaguteraziko dituen adierazpidea topatzea da helburua.

1.4. Zenbait gomendio

- Deskribapenetan adierazpiderik esanguratsuenak *metaforak*, *konparaketak* eta *adjektibo kalifikatuak* dira.
- Ahal dela, *adjektibo orokorrak* eta *zehaztasunikgabeak* baztertu egin behar dira.
- *Hiztegi* on bat erabili.
- Irakurri asko eta liburu onak.

1.5. Adibide praktikoa

Deskribagaia: liburua.

- Aurrean liburua daukagu, bere tamaina, kolorea eta forma ikusten ditugu, azalaren lakarra nabaritzen dugu, izkinak gastatuak, orriak askatuak, pilaturiko hautsaren usaina nabaritzen dugu eta orrien soinua entzuten.
- Objektuaren ezaugarrien zerrenda egiten dugu ondoren:

<i>lodia</i>	<i>orri horiztatuak</i>	<i>20 zmkko zabalera</i>
<i>zaharra</i>	<i>gaizki tratatuak</i>	<i>25 zmkko altuera</i>
<i>gastatua</i>	<i>haundia</i>	<i>8 zmkko lodiera</i>
<i>hautsez betea</i>	<i>ertz altxatuak</i>	<i>erabilia</i>
<i>orri askatuak</i>	<i>pasta espainola</i>	<i>hiztegia</i>
<i>askatua</i>	<i>latza</i>	<i>zikina</i>
<i>lakarra</i>	<i>azala</i>	<i>aspaldikoa</i>
<i>kartoia</i>	<i>astuna</i>	<i>puskatua</i>
<i>larruzko orpoa</i>		<i>hiru zutabe</i>

- Hitzik esanguratsuenak aukeratu eta azpimarkatu egiten ditugu.
- Hitz horiek erabiliz egingo dugu deskribapena.

«Real Academia Española delakoaren hiztegia aspaldi argitaratua. Argi ageri du gaizki tratatua izan dela. Azalaren eskuineko beheko ertza harrotua dago eta erabile-
raren erabileraz oso gastatutako kartoi pusketak bat ere ikusten da. Liburu hau haun-
dia, lodia, astuna eta lakarra da. 25 zentimetroko altuera du, 20ko zabalera eta 8ko lo-
diera gutxi gorabehera. Irikitzerakoan hauts usaina somatzen dugu, zaharrarena,
denbora luzean gordeta egon izan balitz bezala. Bere orri horiztatuak hiru zutabetan
daude banatuta. Horietako batzuk askatuak daude, besteak erdi puskatuak. Orriak pa-
satzen baditugu, erortzen diren orrien hots astuna entzuten dugu. Garbi ikusten da
batere ondo zaindu ez duten nagusi askok erabilitako liburua izan dela.

- Ondoren deskribatu den liburuaren argazkia duzue, ea deskribatu de-
narekin bat datorren.
- Zein dela uste duzu familia ho-
nen maila sozioekonomikoa?
- Nolako usaina ote dago?
- Gustatuko al litzazuke han ego-
tea? Zergatik?

1.6. Beste adibide praktiko bat

- Begira arretaz banatu den argazkia-
ri eta erantzun ondorengo galderiei:
— Non uste duzu egin dela argazki
hau?
— Nortzuk ageri dira?
— Nola daude jantzita?
— Zertan ari dira?

- Erantzunetako ideiak ordenatuz,
deskriba ezazu argazki hori.

1.7. Ariketa

Gai baten inguruko hiztegia eman eta,
hitz horiek erabiliz, deskribapen bat
egin erazi.

• **Etxea**

<i>Izenak</i>	<i>etxetzar</i>	<i>jauregi</i>	<i>teilatu</i>	<i>teila, arbel</i>
	<i>etxola</i>	<i>borda</i>	<i>sapai</i>	<i>uralita, zink</i>
	<i>etxetxo</i>	<i>egoitza</i>	<i>zola</i>	<i>harri, adreilu</i>
	<i>larretxe</i>	<i>gatzelu</i>	<i>ganbara</i>	<i>portlan, silare</i>
	<i>landetxe</i>	<i>baserri</i>	<i>gela</i>	<i>beira, zur</i>
			<i>sukalde</i>	<i>hare, igeltso</i>
			<i>kebide (tximinia)</i>	<i>azulejo</i>
			<i>su (ikatzezko e. a.)</i>	
			<i>sutondo</i>	
			<i>leiho</i>	
			<i>ateleiho, atari, arkupe, etxaurre</i>	

<i>Adjektiboak</i>	handi txiki garai xapal estu zabal erraldoi kaskar	zuri urdin gorri marroi hori ubel berde beltz bex	alai goibel baketsu zaratatsu isil loti erne negarti irrifartsu makal	zahar berri argi ilun sendo zabar txukun eder diztratsu eroso
<i>Aditzak</i>	egon lo egin (egon) zaindu zahartu berritu		aldatu iraun alaitu babestu itzal egin amestu	
<i>Adizlagunak</i>	mendian zelaian landan basoan	bidertzean uhartean itsasondoan harkaizpean	hirian herrian auzoan kalean errekondoan	ibaiondoan aldapan zuloan muinoan gailurrean zubipean

• **Euria**

Euriarekin zerikusia duen hiztegi bat eta zenbait ideia ematen zaizkizu orain. Egin ezazu euriarekin erlazionaturik dagoen deskribapen bat.

<i>Izenak</i>	lanbro xirimiri zaparrada kazkabar elur	laino behelaino hodei oskarbi haize tximista ortzadar trumoi eguraldi uholde ekaitz	eremu lurralde heze ibai erreka zingira laku itsaso erreten ubide baratza	
<i>Adjektiboak</i>	xehe lodi isil zaratatsu	desiragarri molestagarri temati bizigarri mesedegarri kaltegarri		
<i>Aditzak</i>	eraso atertu garbitu hondatu berpiztu	suspertu busti etzan blai egin hoztu epeldu berotu	lehortu hezetu	

2. NARRAZIOA

2.1. Kontzeptua

Narratzea kontatzea da. Narrazioa, beraz, denbora eta toki jakinetan jazotako gertaera batzuen kontatzea da. Gertaera hauek, noski, benetakoak eta faltsuak izan daitezke. Narrazioaren berezkoena ekintza bera da. Denboran eta espazioan zehar jazotako gertaerak, elkarrekin lotuta, esanahi berri bat hartzen dute. Mugimendua da narrazioaren gauzarik funtzeskoena. Narrazioa ez da gauza geldia, baizik mugitu den, garatu den eta aldatzen den zerbait.

2.2. Narrazioaren bereizgarriak

Narrazioa ona izateko, ezinbesteko baldintza da gertaerak trebeki, irakurlearen arreta eta jakin nahia bizkortu eta mantentzeko eran kontatzea.

• Argibide praktikoak

a) *Hasiera ona nahitaezkoa da.* Hariari heldu behar zaio lehenbailehen, alperrikako esplikazio luzeak egiten aritu gabe.

b) *Narrazioa «margotu» egin behar da.* Tartean-tartean giroaren eta pertsonaien deskribapenak eta beraien arteko elkarrizketak sartu behar dira.

c) *Bukaera on bat ere beharrezkoa da.* Ustegabeko edo irudimenezko bukaera batek bihur dezake bikain istoriorik arruntena ere. Narrazioaren ardatza gizakia da. Anekdota berez ezer gutxi-rako balio du.

d) *Narrazioa zenbat eta luzeago orduan eta sakontasun gutxiago.*

e) *Narrazioak beti egon behar du egian oinarrituta.*

f) *Egi itxura ezinbestekoa da narrazioan, ez da nahikoa kontatzen diren gertaerak benetakoak izatea, egi itxura ere eduki behar dute.*

2.3. Narrazioaren osagaiak

2.3.1. Akzioa

Kontatzen dena ordenatua eta progresio baten barruan moldatua egongo da, harik eta bukaera iritsi arte. Narrazioaren egitura hiru zatitan banatzen da:

- *Aurkezpena* (gertaera, pertsonaien eta giroaren azalpena).
- *Muina* (gertaeren garapena).
- *Bukaera* (egoeraren irtenbidea).

Gergaera hauek kontatzerakoan bi irizpide izan ditzakegu: bata *kronologikoa eta kausala*, hau da, kausak ondorioak baino lehenago eta hasierako gertaerak ondorengo aurretik, eta bestea *zeharka-meharkakoa*, hau da, denborari batere kasurik egiten ez diona.

2.3.2. Pertsonaiak

- Pertsonaiak ondo planteiatzeko beren barruan sartu beharra dago.
- Ez dago pertsonaien ezaugarri fisiko eta psikiko guztiak azaldu beharrik; aski dira bereizgarrienak.
- Hobe da pertsonaiaren izaera nolako den irakurleari zuzenean ez esatea. Kontaera aurrera joan ahalazalduz joan behar da, berak esaten eta egiten duenagatik eta baita besteek berari buruz pentsatzen duenagatik ere.
- Elkarrizketak adieraziko du pertsonaien psikologia. Elkarrizketaren bidez, beren hitz egiteko moldez, hain zuzen ere, azaltzen dituzte pertsonaiek zuzenean beren sentimendu, ideia eta iritziak.

2.3.3. Giroa

Gizona bere inguruak mugatzen du, hau da, familiako, lanbideko eta geografiako ingurugiroak.

Horregatik, garrantzia handia du narrazioan giroa ondo zehazteak, honek ematen bait dio kontatutakoari jatorrasuna.

2.4. Narrazio-teknikak

2.4.1. Lehenengo pertsonan kontatzea

Ni pertsona erabiltzen da, eta idazlea eta protagonista zeharo identifikatuta daude. Norberak bizitutako edo ikusitako gertaerak kontatzeko erabiltzen da.

2.4.2. Hirugarren pertsonan kontatzea

- *Hura* pertsona erabiltzea da. Teknika honetan ikuspuntu ezberdinak izan ditzakete kontalariak:
- *Kontalari orojakilea*. Horrelako kontalariak dena daki, bai kanpoko gertaerak eta baita pertsonaien sentimendurik ezkutukoena ere.
- *Kontalaria ikuslea denean*. Kasu honetan ere kontalariak ikusi eta kontatu egiten du, baina ez du orojakileak daukan ezagutza osoa. Gertaeren ikusle hutsa da eta zenbait muga ditu.
- *Kontalaria entzulea denean*. Hemen kontalariak ez du berak zuzenean

kontatzen, baizik eta pertsonara baten bidez. Beste honek hirugarren pertsonan kontatzen du ikusten duen guztia.

3. LABURPENEA

3.1. Prozedura

- Testu bat laburtzeko prozedura honako hau izan daiteke:
- Parrafoak zenbatu.
- Parrafo bakoitzean ekintza eta ideiarik funtsezkoenak azpimarratu.
- Azpimarratutako hitzen zerrenda egin, gero alda daitekeena.
- Ideia nagusiekin parrafo bat idatzi, esaldien arteko loturak eta puntuazio-marka egokiak erabiliz. Behar izanez gero, originalean azaltzen ez diren hitzak ere erabil daitezke.

3.2. Adibide praktikoa

1. *Marco Polo, abenturazale veneziarra*, bere aita eta osabarekin batera *bere hiritik atera* eta Europako Ekialdera abiatu zen.
2. Ekialdean, *Asiako nazio zoragarrietan ibili zen*. Nazio horien bizitza eta historia ametsetako kondairen bidez bakarrik ezagutzen ziren. Bidaia arriskutsuetako batean *Txinako Harresi Haundira iritsi zen*, 2.400 kilometroko luzera zuen eta Kristo aurretik 250 urte eraiki zen Txina hartu nahi zuten etsaien erasoak geldierazteko.
3. Bere sorterritik kanpo, *25 urtean egonda gero, itzuli egin zen, Genobatarren aurkako guduaren parte hartu zuen eta preso hartu zuten*.
4. *Gartzelan Marco Poloren liburua delakoa idatzi zuen*, eta bertan bere gertakizunak eta abenturak azaltzen ditu.

1. Marco Polo, veneziarra, bere sorterritik atera zen.
2. Asian ibili zen.
3. Txinako Harresi Haundiraino iritsi zen.
4. 25 urte geroago itzuli, Genobatarren aurka burrukatu eta preso hartu zuten.
5. Gartzelan Marco Poloren liburua idatzi zuen.

«Marco Polo bere sorterritik, Venecia-tik, Ekialdera abiatu zen. Asian ibili eta Txinako Harresi Haundiraino iritsi zen. 25 urte geroago bere sorterrira itzuli, Genovataren aurka burukatu eta preso hartu zuten. Gartzelan Marco Poloren liburua idatzi zuen».

4. CURRICULUM VITAE

4.1. Osagaiak

- Eskatzailearen izena eta deiturak.
- N.A.N.-ren zenbakia.
- Jaiotze-eguna eta tokia.
- Adina.
- Helbidea.
- Ikasketak.
- Lan egindako enpresa.
- Enpresa horietako erreferentziak.
- Aurkezten dituen dokumentuen zehaztapena.
- Data.
- Sinadura.

4.2. Adibide praktikoa

GISASOLA, S.A.
Bilboko Etorbidea, 5
EIBAR (Gipuzkoa)

Ermua, 1985.eko urriak 7

Jaun Agurgarri horiek:

Hil honen 3an «La Gaceta del Norte» egunkarian Salmentarako Laguntzailearen lanpostua betetzeko egiten duzuen deialdia ikusirik, zuei idazteko erabakia hartu dut.

Felipe Kastresana Iruin nauzue, eta nere NANren zenbakia 15.725.134 da, Bizkaiko Ermuan jaio nintzen 1962.eko Ekainaren 7an, 23 urte ditut; ezkongai naiz eta herri bereko Ongarai kaleko 13an dut bizilekua.

Ikasketak: «Lanbide Heziketa» Eibarko «Nuestra Sra. de la Providencia» ikastetxean burutu nuen.

Frantses eta Ingeleseko lau ikasturte egin nituen ondoren, Deustuko Hizkuntza Eskolan, nota bikainak lortuz.

Joan zen Maiatararte «Forjas de Aizkorri» enpresan lan egin nuen; baina, bizileku-arazoak zirela eta, lanpostua utzi beharrean aurkitu nintzen.

Orri honekin batera, lehen esandakoaren frogagiri guztiak bidaltzen dizkizuet:

- Lanbide Heziketa-ren tituluaren fotokopia.
- Frantses eta Ingeleseko emaitzen ziurtagiria.
- «Forjas de Aizkorri» enpresan lan egindakoaren ziurtagiria.

Nire eskaera aintzakotzat hartuko duzuelakoan, zuen berrien zai geratzen naiz. Har ezazue bienbitartean nire agurrik beroena.

Izp.: Felipe Kastresana

5. ESKUTITZA

5.1. Ezaugarriak

- Bitarteko azkarra, merkea eta zuzena.
- Batez ere mezu pertsonala.
- Egoera bati dagokion erantzun zehatza.
- Elkarrizketaren ordezkoa.

5.2. Idaztankera

Eskutitza idazten dugunean ez dugu ahotsaren gorabehera eta keinuen laguntzarik esanahia adierazteko, horregatik ezkutitzak argia, adierazkorra eta laburra izan behar du. Idaztankera hartzailearen erakoa da, baita hartzaile hori dagoen egoeraren eta ordurarte berarekin izandako hartuemanen arabera ere. Gaiak ere, noski, zerikusi haundia du. Ez da berdina lagun zahar bati idaztea edo enpresa bateko zuzendariari.

5.3. Oinarrizko osagarri formalak

- Tokia.
- Hartzailearen izena eta helbidea.
- Agurra.
- Sarrera.
- Gaiaren garapena.
- Azken agurra.
- Sinadura.

5.4. Zenbait gomendio praktikoa

- Garrantzitsuenetik hasi.
- Gai bakoitzari parrafo bat eskaini.
- Puntu eta apartea laguntza haundikoa da.
- Era natural batez bukatu.
- Hartzailea zerbait egitera gonbidatu.
- Azken-agurra eskutitzaren idaztan-kerari egokitu.
- Azken-agurra oso luzea izan ez da-
din saiatu.

5.5. Oinarrizko berezitasunak

5.5.1. Argitasuna lortzeko bideak:

- Esaldi motzak erabiltzea.
- Hitzak arretaz aukeratzea.
- Esaldi barruko hitzen arteko kon-
kordantzia ondo zaintzea.
- Zalantzako hitzak baztertzea.
- Izenorde gutxi erabiltzea.
- Laburdurarik ez erabiltzea.
- Hitz zailak saihestea.
- Adjektibo gehiegi ez erabiltzea.
- Poliki pentsatuz eta azkar idaztea.

Argitasunaren etsaiak honako hauek dira:

- Bukatu gabeko esaldiak.
- Premiarik gabeko hitzak.
- Zeharka-meharka ibiltzea.
- Esaldiaren ordena logikoa alda-
tzea.
- Oso gastatutako hitzak erabiltzea.

5.5.2. Laburtasuna. Hau lortzeko:

- Premiarik gabeko esaldiak bazter-
tu.
- Idatzitakoa berrikusi.
- Ideiak ez errepikatu.
- Ez aritu esango dena iragartzen,
esatekoa esan.
- Xehetasunetan ez luzatu.
- Hariari lehenbailehen heldu. La-
burtasuna ez da:
 - hizkera telegrafikoa erabiltzea.
 - esaldi osatugabeak erabiltzea.
 - zehaztasunik eza.
 - premiarik gabeko argitasunak.

5.5.3. Zehaztasuna. Hau lortzeko:

- Zalantzaren aurrean sinonimoen
hiztegia erabili.
- Menpeko esaldi gehiegi ez erabili.
- Intzisu gehiegik kalte egiten du.
- Eskutitzaren puntu bakoitza azaldu
eta arrazoitu.
- Zehaztasun falta baztertu.

5.5.4. Zuzentasuna

Eskutitza idazterakoan, hartzaileari inpresio kaskarra sortuko dion edozein akats saihestu behar da. Akatsak izan daitezke bai edukiari dagozkionak eta bai itxurari dagozkionak ere.

Eskutitza egoki idazteko, honako akatsei arreta jarri:


- Akats ortografikoei.
- Puntuazio-markak gaizki erabiltzeari.
- Hitzen ebakera ezegokia.
- Zirriborrea.

- Orri-ertzetako ezberdinak.
- Eskutitz deszentratua.
- Gaizki orekatutako parrafoak.

Beharreko zuzentasuna lortuko da:

- Esan behar dena ondo pentsatzen denean.
- Nori esan eta nola esan aztertzen denean.
- Beharreko «distantzia» mantentzen denean.
- Ortografia zaintzen denean.
- Eskutitzaren azaleko itxura zaintzen denean.

5.6. Eskutitzaren banaketa



6. INFORMAZIOA ESKATZEKO ESKUTITZA

6.1. Adibidea

Bidai agentzia bati informazioa eskatzea.

- **Eskema**
 - Tokia eta data.
 - Burukoa (Bidai agentziaren helbidea).

- Tratamenduzko formula.
- Egin nahi den bidaiari buruzko xehetasunak eman; zein tokitara, zein egunetan, zein garraiotan nahiago den, zein ostatu motatan, zenbat lagun joango diren etabar.
- Zerbitzu guzti horien prezioen informazioa eskatu.
- Agurtzeko formula.
- Sinadura.
- Oharra: bisitatu nahi diren tokien mapak eta foiletoen eskaera.

6.2. Adibide praktikoa

Azpeitian, 1985.eko Azaroak 16

BLANCO Jauna
WAGONS LITS
Miramar kalea, 6
DONOSTIA

Agur t'ardi.

Gabonetan bidaia bat egin nahi dugula eta, zuregana jotzen dugu zenbait xehetasunen eske.

Bi lagun gara eta Cuba-ra joan nahi dugu Gabonak pasatzera, ahal balitz Abenduaren 21etik Urtarrilaren 6a bitartean. Donostiatik Madril-era Talgoan joan nahi genuke eta gero hegazkinean handik La Habana-ra. Baldin eta Talgoa hegazkinarekin konbinatzerik ez balego, bezperan Madril-era joateko eragozpenik ez genuke. Ostatuari dagokionez, gela bikoitza eta bainoduna nahi dugu; garbia eta txukuna izanez gero, ez zaigu inporta zenbat izarretakoa den. Pentsio osoan egoteko asmoa dugu.

Zerbitzu guzti hauen prezioa eta ongi derizkiozun xehetasun oro eskertuko genizuke.

Besterik gabe, zure berrien zai geratzen gara. Aldez aurretik esker mila.

Izp.: Maite Garin

Oharra: Ez dakigu garbi zeintzu diren Cuban ikusteko tokirik egokienak. Horregatik zure esku uzten dugu horien aukera. Nolanahi ere, toki horietako mapak eta foiletoak bidaltzea eskertuko genizuke.

7. GOMENDIO ESKUTITZA

7.1. Osagaiak

- Tokia eta data.
- Burukoa (hartzailearen izena eta helbidea).
- Tratamenduzko formula.
- Gomendatzeko arrazoiaren aurkezpen laburra.
- Gomendatuaren ezaugarriak eta beste gorabeherak.
- Gomendatuak bai idazten den pertsonari bai erakundeari egokitze duen ahalmena.
- Gomendioa bera.
- Azken agurreko formula.
- Sinadura.
- Punturen bat zehaztu nahi izanez gero, oharren bat.

Oharra: Lehenengo hiruren eta azkeneko hiru punturen ordena ez dago aldatzerik eta, betez ere, ez dago bat bera ere ahazterik.

7.2. Adibide praktikoa

Donostian, 1985.eko Azaroak 2

IÑIGO SASIAIN Jauna
Zuzendari Orokorra
Forjas Alavesas
GASTEIZ

Agur t'ardi.

Zuzentzen duzun enpresa horretan gure lankide izandako Miren Ugalde andereñoak lanpostu bat eskatu duela eta, bere aldeko neure iritzi ezin hobea azaldu nahi ditudut.

Gurekin lanean aritu zen denboran eraginkortasun eta zintzotasun oso-oso erakutsi zuen. Gure lantegian kutzazaina izan zenez, oso egoki derizkiot eskatzen duen lanposturako.

Aldez aurretik eskertuz eta gutun hau aintzakotzat hartuko duzulakoan, jaso nire agurrik zintzoena.

Izp.: Pedro Errasti

8. IRAKURRITAKO LIBURU BATI BURUZKO KOMENTARIOA

Ariketa honek irakurketa arretatsua eskatzen du. Komeni da liburuaren punturik garrantzitsuenei buruzko oharrak hartzea, irakurritakoak gogora dakartzan iritzi pertsonalak komentatu ahal izateko.

Komentarioak argia, objektiboa eta logikoa izan behar du.

Ondorengo eskemari jarraiki, egin aukeratutako liburuaren komentarioa.

• Eskema

- Idazlea bere garaian eta bere korronte literarioan lekutu.
- Liburuaren gaia mugatu.
- Edukiaren laburpena egin.
- Liburuaren ezaugarri nagusienak aztertu.
- Konklusioa: aurreko puntu guztiak kontuan harturik, liburuaren ga-

rrantziari buruzko iritzi orokorra eman.

- Komentariorako erabili den bibliografia adierazi.

9. GAI BATI BURUZKO IDAZKETA

Lehenengo pausua gaia aukeratzea da.

Bigarrena eskema bat egitea. Honek hiru atal izango ditu:

- a) *Sarrera*: gaiaren aurkezpena, gai hori aukeratzeko arrazoia eta irakurlearen arreta suspertzea.
- b) *Gaiaren garapena*: aukeratutako gaiaren punturik garrantzitsuenak aurkeztu eta zabal garatu.
- c) *Konklusioa*: ordurarteko ideien laburpen orokor bat egin eta iritzi pertsonala edota irtenbide posible bat eskaini.

Hirugarren pausua idazketa bera da eskeman azaldutako ideiekin.

BIBLIOGRAFIA

- BALMES, Z. (1979): *Comunicación escrita*, Mexico, Trillas, 114 or.
- HEGAZ (1981): *Euskara lantzen 0*, Donostia, Erein, 278 or.
- RAIMES, A. (1983): *Techniques in teaching writing*, New York, Oxford University Press, 163 or.
- TORRIENTE, G. (1983): *Cómo escribir correctamente*, Madrid, Playor, 184 or.

APUNTES PARA EL TRABAJO DE LA EXPRESION ESCRITA EN ALFABETIZACION

Estudios experimentales recientes han puesto de manifiesto que el aprendizaje de L2 resulta mucho más eficiente cuando se crean las condiciones para que se transfieran a la situación de aprendizaje las habilidades que el sujeto posee en L1. La autora del artículo afirma que, por lo general, el euskaldún que toma parte en programas de alfabetización apenas domina las técnicas de escritura en la lengua en que

este fue escolarizado (castellano o francés). Es por ello que la enseñanza de la expresión escrita en euskara no puede ignorar el abordar el estudio de las características formales de las diferentes técnicas de expresión. La autora presenta en este artículo unos apuntes acerca de las diferentes técnicas de expresión (descripción, narración, resumen, curriculum vitae, carta...).

NOTES ON WRITING PRACTICE IN LITERACY TRAINING

Recent experimental studies have shown that L2 learning is far more efficient when conditions are created in which the learner's L1 skills can be transferred to the learning situation. The author of the article points out that the Basque-speaking participant in literacy programmes in general possesses only a scanty command of writing techniques in the language of schooling (Spa-

nish or French). Thus training in writing in Basque must involve the study of the formal features of different techniques of expression. The author offers some observations about various expression techniques (description, narration, summary, curriculum vitae, correspondence, etc.).

QUELQUES ANNOTATIONS POUR LE TRAVAIL DE L'EXPRESSION ECRITE DANS L'ALPHABETISATION

Des études expérimentales récentes ont mis en évidence que l'apprentissage de la L2 est beaucoup plus efficace, lorsque les conditions pour le transfert des aptitudes du sujet dans la L1 à la situation d'apprentissage, sont créées. L'auteur de l'article affirme que généralement, l'euskaldun qui prend part aux programmes d'alphabétisation, ne domine presque pas les techniques de l'écriture dans la langue où il a été

scolarisé (espagnol ou français). C'est pour cela que l'enseignement de l'expression écrite en euskara, ne peut ignorer d'entreprendre l'étude des caractéristiques formelles des différentes techniques d'expression. L'auteur présente dans cet article quelques annotations au sujet des différents techniques d'expression (description, récit, résumé, curriculum vitae, lettre...)